



UROLA KOSTAKO  
UDAL ELKARTEA

## **Ingurumen Saila**

Bildutako hondakinen datuak  
Herriz herri, urtez urte

2017

# AURKIBIDEA

<b>HONDAKINAK GAIKA BILTZEKO ZERBITZUAK.....</b>	<b>2</b>
<b>1. HONDAKINAK GAIKA: KALEKO EDUKIONTZIAK .....</b>	<b>3</b>
<b>2. GARBIGUNEAK ETA SAILKAPEN EREMUA .....</b>	<b>8</b>

## HONDAKINAK GAIKA BILTZEKO ZERBITZUAK

Urola Kostako Udal Elkarteak 1980ko hamarraldian hasi zen kaleko edukiontzien bidez hondakinak bereiztuta biltzen. Lehendabizi, beira bereiztuta biltzen hasi ginen. Ondoren etorri dira papera eta kartoia, ontzi arinak, pilak, olioak, arropa eta hondakin organikoak.

Horrekin batera, 2002an Zarauzko garbigunea jarri genuen martxan, herritarren eta gremio txikien hainbat hiri hondakin bereiztuta jasotzeko. 2005ean Zumaiako garbigunea zabaldu genuen eta 2010ean Aiakoa.

Bestalde, Udal Elkarteak hondakinak sailkatzeko eremu bat du Urteta zabortegean. Eremu hori 2015-01-01az geroztik Udal Elkarteak eta udalek erabiltzen dugu, garbiguneetan nahiz bilketa zerbitzuetan jasotako hondakinak pilatu eta bereizteko. Sailkapen eremu hori, nolabait esan, garbigune zerbitzuaren osagarri da.

Urola Kostako Udal Elkarteak kudeatzen dituen zerbitzuen sare horren helburua da ahalik eta hiri hondakin gehien bereiztuta jaso eta birziklatzera bideratzea.

Ondoren dituzu zerbitzu horietan jasotako hondakinei buruzko datuak, herriz herri eta urtez urte. Batetik, laburbildu ditugu 2017ko datuak eta, bilakaera ikusteko, erantsi ditugu aurreko urteetakoak.

## 1. HONDAKINAK GAIKA: KALEKO EDUKIONTZIAK



Udal Elkarteak kaleko edukiontzien bidez 2017an gaika jaso dituen hondakinen bilketen emaitza aurreko urtekoaren antzekoa izan da oro har.

Orotara, %1,12 hondakin gehiago jaso dira. Hona hemen 2017an kaleko edukiontzien bidez jasotako kopuruak, herriz herri (kopuruak Kg-tan emanda daude):

Hondakina	Aia	Getaria	Orio	Zarautz	Zumaia	Guztira
Errefusa	693.455	1.105.025	1.451.560	5.579.880	2.372.240	11.202.160
Arropa	10.988	16.771	34.281	137.742	64.784	264.566
Beira	76.138	218.013	208.484	1.091.816	416.963	2.011.414
Ontzi arinak	44.246	91.063	146.869	481.689	231.374	995.240
Olio begetalak	1.210	1.897	2.160	14.470	6.370	26.107
Papera	79.120	204.376	326.099	992.865	502.020	2.104.482
Materia organikoa	30.439	126.228	215.897	963.897	489.299	1.825.760
Pilak	147	203	422	1.667	710	3.149
<b>GUZTIRA (Kg)</b>	<b>935.743</b>	<b>1.763.576</b>	<b>2.385.772</b>	<b>9.264.027</b>	<b>4.083.760</b>	<b>18.432.878</b>

Hona hemen 2013-2017 epealdiko datuen bilakaera:

Frakzioa	2013	2014	2015	2016	2017	Aldea 2016-2017
Errefusa	10.559.690	10.476.098	10.881.960	10.955.350	11.202.160	2,20
Arropa	175.422	207.147	229.031	241.365	264.566	8,77
Beira	1.886.683	1.927.782	1.938.881	2.040.008	2.011.414	-1,42
Ontzi arinak	866.000	947.701	961.399	964.380	995.240	3,10
Olio begetalak	41.832	39.500	39.471	37.401	26.107	-43,26
Papera	2.052.090	2.065.079	2.053.090	2.134.123	2.104.482	-1,41
Organikoa	1.806.020	1.874.600	1.875.340	1.849.040	1.825.760	-1,28
Pilak	3.999	3.727	3.788	5.433	3.149	-72,53
GUZTIRA (Kg)	17.391.736	17.541.634	17.982.959	18.227.100	18.432.878	1,12

Ondoren datoz jasotako hondakin mota bakoitzaren inguruko datu zehatzak.

### PAPERA-KARTOIA



Papera gaika biltzen 1996. urtean hasi zen Udal Elkarte. 2008az geroztik papera eta kartoia zerbitzu berean jasotzen dira. Une honetan papera jasotzeko 270 edukiontzi daude jarrita eskualdean.

2017. urtean 2.104.482 kg paper jaso dira, 2016an baino %1,41 gutxiago. Guztira, biztanleko 47,99 Kg paper jaso dira 2017an.

### ONTZI ARINAK



Ontzi arinen gaikako bilketa 2000. urtean hasi zen eta ordudanik jasotako ontzi arinen kopuruak gora egin du etengabe. Une honetan ontzi arinak jasotzeko 243 edukiontzi daude jarrita eskualdean.

2017an aurreko urtean baino %3,10 ontzi arin gehiago jaso da. Guztira 995.240 Kg ontzi arin jaso dira, hain zuzen ere biztanleko 22,70 Kg.

## BEIRA



Beira biltzeko zerbitzua 80ko hamarkadan jarri zen martxan eskualdean. Ordudanik, bilketa Ecovidrio erakundeak egiten du. Une honetan beira jasotzeko 228 edukiontzi daude jarrita eskualdean.

2017an 2.011.414 Kg beira jaso dira, 2016an baino %1,42 gutxiago. Batez beste, 45,87 Kg jaso dira biztanleko.

## ARROPA



Arropa gaika biltzeko zerbitzua 2002an jarri zen martxan. Eskualdean 25 edukiontzi daude jarrita. Edukiontzi horietan etxeko beste hainbat hondakin ere utz daitezke, hala nola: jostailuak, sehaskak, motxilak, liburuak, aparailu elektriko eta elektroniko txikiak, pitxiak edo bisuteria, bazarra...

2017an 264.566 Kg arropa jaso dira, 2016an baino %8,77 gehiago. Biztanleko 6,03 Kg arropa jaso dira.

## PILAK



Pilak gaika biltzeko zerbitzua 1997an jarri zen martxan. Eskualde osoan guztira 40 edukiontzi daude jarrita gaur egun.

2017an 3.149 kilo pila jaso dira eskualdean, 2016an baino %72,53 gutxiago. Biztanleko 0,07 Kg jaso dira.

## OLIO BEGETALAK



Etxeko olio begetala biltzen 2002an hasi zen Udal Elkartea. 2010era arte etxeko olio eta hondakin arriskutsuak puntu berde mugikorraren bidez biltzen ziren. 2010etik aurrera, ordea, kalean era iraunkorrean jarritako edukiontzien bidez jaso da. Aldaketa horrekin nabarmen igo da bereiz jasotako olio kopurua.

2017an guztira 26.107 l olio begetal jaso dira (0,6 litro biztanleko), 2016an baino %43,26 gutxiago.

## MATERIA ORGANIKOA



Materia organikoaren gaikako bilketa (proba gisa) 2008ko irailean hasi zen, Zarautzen eta Zumaian, udalerrri horiek hartu baitzuten parte, Gipuzkoako beste udalerrri batzuekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarri zuen lehen saiakeran. Horren ondotik, 2010ean hondakin organikoak biltzeko zerbitzua bost herrietan ezarri zen.

2017an 1.825.760 Kg jaso dira, 2016an baino %1,28 gutxiago. Ikus dezagun jasotako kopuruen bilakaera:

	2008	2010	2012	2014	2016	2017
<b>GUZTIRA (Kg)</b>	<b>51.800</b>	<b>410.211</b>	<b>1.527.980</b>	<b>1.874.600</b>	<b>1.849.040</b>	<b>1.825.760</b>

Jasotako kopuruen bilakaera-datuak erakusten dute zerbitzua egonkortu egin dela eta erabiltzaileen portaera sustraitu egin dela.



## BIRZIKLATZEKO ETXOLAK

Urola Kostako Udal Elkarteak birziklatzeko 3 etxola ditu jarrita eskualdean: bat Aian, bigarrena Getarian eta hirugarrena Zumaian. Birziklatzeko etxola etxeko hondakin arriskutsuak bereiz uzteko gune bat da. Herritarrek nahi dutenean utz ditzakete bertan etxeko hondakin arriskutsuak, egun eta ordu jakin batzuen zain egon gabe. Etxola metalezkoa da eta segurtasun handiko egitura du. Herritarrek paretan dituen zuloetatik barrena sartu behar dituzte etxeko hondakin arriskutsuak.

Honako hondakinak utz daitezke etxolan:

- Aparailu elektriko txikiak
- Arropa
- Erabilitako landare olioak
- Merkuriozko termometroak
- Pilak
- Erradiografiak
- Aerosolak
- Garbiketako produktuak
- Tinta eta toner kartutxoak
- Pintura
- Motor olioak
- Fluoreszenteak, kontsumo gutxiko bonbillak



Aiako birziklatze etxola



Zumaiako birziklatze etxola



Getariako birziklatze etxola





## 2. GARBIGUNEAK ETA SAILKAPEN EREMUA

3 garbigune: Zarautz, Zumaia, Aia-Orio  
Sailkapen planta: Urteta  
2017an 3.851.296 Kg hondakin  
2016an baino %0,93 gehiago  
Biztanleko 87,82 Kg

Garbiguneak udalerraren inguruan kokaturik dauden biltegiak dira, hondakinak gaika eta sailkatuta biltzeko. Helburu nagusia da herritarrei hondakinak sailkatuta uzteko leku bat eskaintzea, beren borondatez hondakinak bertara eraman ditzaten.

Garbigunean edukiontzia daude jarrita, hondakinak gaika sailkatu eta horietako batzuk berriz erabili edo eta birziklatzeko. Garbigunean isuritako hondakinak indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera kudeatu behar dira.

Garbigunearen helburu nagusiak honakoak dira:

- Hondakinetan dauden materialak berreskuratzea, gero birziklatzeko.
- Hondakinak kontrolik gabe isurtzea saihestea.
- Zabortegei kontrolatuetan tratatu edo desagerrarazi behar diren hondakinak gutxitzea.

Urola Kostako Udal Elkarteak hiru garbigune ditu, bata Zarautzen (2002ko urtarrilean irekia), bigarrena Zumaian (2005eko ekainean irekia) eta hirugarrena Aia-Orion (2010eko ekainean irekia).

Garbiguneak herritarrek, eraikuntzako gremio txikiek eta merkatariek erabil ditzakete, betiere muga batzuk errespetatuz (pertsonek eta asteko 2m<sup>3</sup> edo 750 kg hondakin onartzen dira). 2018an indarrean jarriko den ordenantzaren arabera, 2018tik aurrera merkatariek, ostalariek, zerbitzuek eta enpresek Udal Elkartearen baimena eskuratu behar dute garbigune-zerbitzua erabili ahal izateko.

Garbiguneetan hainbat hondakin onartzen dira: egurra, eskonbroa, kartoia, txatarra metalikoa, lerro gris eta marroiko hondakinak, hondakin arriskutsuak...

Horrekin batera, Udal Elkarteak hondakinak sailkatzeko eremu bat du Urteta zabortegean. Eremu hori 2015-01-01az gozotik Udal Elkarteak eta udalek erabiltzen dugu, garbiguneetan nahiz bilketa zerbitzuetan jasotako hiri hondakinak pilatu eta bereizteko. Sailkapen eremu hori, nolabait esan, garbigune zerbitzuaren osagarri da.

Zarauzko garbigunea



Zumaiako garbigunea



Aiako garbigunea



Hiru garbiguneak eta sailkapen eremua kontuan hartuta, 2017an 3.851.296 Kg hondakin jaso dira gaika (biztanleko 87,82 Kg). Bilakaerari dagokionez, aurreko urtean baino %0,93 gehiago jaso dugu.

Hona hemen, 2017an jasotako hondakinak, hondakin motaren arabera (kopuruak Kg-tan emanda daude):

Hondakina	Guztira	Aiako garbigunea	Zarauzko garbigunea	Zumaiako garbigunea	Urtetako sailkapen eremua
Errefusa	677.350	136.500	241.980	173.920	124.950
Egurra	1.631.346	195.800	310.330	358.756	766.460
Eskonbroa	935.460	217.340	451.880	266.240	0
Hondakin arriskutsuak	23.393	5.553	10.768	7.072	0
Kartoia	98.560	36.868	37.290	24.402	0
Raee	210.188	35.450	103.458	54.220	17.060
Txatarra metalikoa	98.100	20.180	29.540	41.280	7.100
Lorazaintza	77.080	27.640	26.780	22.660	0
Pneumatikoak	2.234	0	2.234	0	0
Jostailuak	5.145	905	2.660	1.580	0
Enbalatzeko plastikoa	15.320	2.900	0	2.040	10.380
Poliespana	4.800	0	0	0	4.800
Denetariko plastikoa	72.320	14.620	31.640	20.100	5.960
<b>Guztira (Kg)</b>	<b>3.851.296</b>	<b>693.756</b>	<b>1.248.560</b>	<b>972.270</b>	<b>936.710</b>

Hona hemen garbiguneen zerbitzuaren bilakaera, lehen garbigunea martxan jarri zenetik hasita (2002-2017):

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Kopurua (Kg)	804.890	1.096.820	1.630.958	1.946.692	2.049.887	2.372.731	2.321.462	2.202.756
Aurreko urtearekiko		26,62	32,75	16,22	5,03	13,61	-2,21	-5,39
Biztanleak	38.620	38.897	39.447	39.805	40.158	40.613	41.010	41.524
Kg biztanleko	20,84	28,20	41,35	48,91	51,05	58,42	56,61	53,05

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Kopurua (Kg)	2.571.020	2.618.915	2.350.936	2.342.984	2.470.564	3.594.462	3.815.302	3.851.296
Aurreko urtearekiko	14,32	1,83	-11,40	-0,34	5,16	31,27	5,79	0,93
Biztanleak	41.824	42.148	42.341	42.634	43.083	43.425	43.672	43.852
Kg biztanleko	61,47	62,14	55,52	54,96	54,39	82,77	87,36	87,82

